


Ibaia

Ibaia, izadian

Euriak, urtzen den elurak eta mendiko iturriek, ura ematen dute, eta ur honek errekatxoak, errekek eta ibaiak sortzen ditu.

Übide osoan zehar, ibaiak sakondu egiten du bere ibilgua, lurra eta harriak lautadaraino eramanez; azkenik, itsasoratu egiten da.



Uraren bidaia


Ura lurrindu egiten da eguzkiaren berotasunez, eta hodeiak sortzen ditu. Hauek, ondoren, euria edota elurra ematen dute.

Eroritako ur hau lurrazalaren zirrituetatik sar daiteke eta lurpeko lakuak eta errekek sortu. Baina, ur gehiena ibaietara joaten da eta itsasora itzuli. Gero, ura lurrindu egiten da, hodeiak sortzen dira... eta berriro hasten da bidaia.



Ibaia, lanean

Ibaiak lan egiten du, etengabe eta mesede ugari eginez! Zenbait tokitan ibaia erabiltzen da arrainak hazteko (arrain-hazkuntza da). Ibaietako ura elektra-endarra sortzeko eta fabriketarako ere erabiltzen da. Ibai handiak, merkataritzarako ere baliagarriak gertatzen dira. Ibaiak, hiritarrak eta baserritarrak urez hornitzen ditu.



Hirian erabiltzeko ura ibaira isurtzen da.

Uraren kutsadura

Ura kutsatzen da, bertara hondakinak eta zaborra botatzen direlako. Produktu hauek, landareak eta animaliak pozointzen dituzte. Kutsadura hau gutxitzeko, ur garbitegiek ura garbitzen dute eta ibaira berriro itzuli.



Fabrikek produktu arriskutsuak botatzen dituzte.



Euriak, ongarmien zati bat berekin eramaten du.